

ATZERRITAR LEGEDIARI ERANTZUNA

Arrieta (2005.6.22)

Geure herriaren historian eta, zehazki, Nafarroako erresumaren konkistaren ostean, estatua berreskuratzeko saialdi gogorrak izan ditugu. Historia arduraz aztertuz gero, ez dugu zalantzarik izan behar, esaten badugu, askatasuna berreskuratzen ez dugula disziplina handirik ipini. Politika beste disziplina zientifikoaren maila berdinekoa da, eta geure Estatua berreskuratzeko ez ditugu geure indarrak une eta leku egokian erabili. Argi eta garbi utzi nahi dugu, politikan, espontaneitatea eta borondate ona edo txarra ez direla bide lagun egokiak. Behin eta berriz, horrelakoak historian izan ditugu lekuko.

Eman izan diren guda garrantzitsuek porrota izan dute amaiera. Porrotek errendizio zentzua dute berarekin. Herri honetako politikari batzuk, ordea, errendizioa era gordinean azaldu ordez, lorpen bezala opa nahi digute. Lotsa zer den ez dakiten horiek harrokeria eta koldarkeriaz akordioak eta negoziaketak burutzen ari direla esaten digute. Izan ere, euren porrota saldu beharrean dira. Eta hori gutxi balitz, etsipena areagotzen ari den une honetan akordioak bakea ekarriko duela esango digute. Noski, Esparterok eta Morotok burutu zuten modukoa izan beharko du. Traizioz betetako bakea eta akordioa. Garaileak inposatutako errendizioak ezin du bestelako aukerarik ematen.

Halaber, Franko hil eta ondorengo urteak aproposak izan ziren errentagarritasun politikoa ateratzeko. Herri mugimendua gidatzen ez jakiteak benetako lorpen politikorik ez lortzea eraman gintuen. Aukera ezin hobea izan genuen benetako boterea izateko. Herriko klase politikoa behar bezala indarrak ez neurtzeak eta erabiltzeak geure indarrak azpi baloratzea eta musu- truk saltzea jo zuen. Gidaritza politikoa geure eskutan hartu eta eutsi beharrean, inperialistei eman zieten. Gobernu probisionalak geurea izatea edo inperialisten esku uztea ez baitzen berdina. Ezin uka, behin inperialisten ildoak hartuz gero, horrek berehalako menpekotasuna dakarrela. Gernikako estatutua Europako hobena zela zioten. Orain, berriz, hilda dagoela. Jakin dezaten memelo horiek, horrelako akordioak hil beharra dakarrela hasiera hasieratik abortiboa baitzen.

Bestaldetik, berriz, Frankok ezarritako bakeari Gernikako estatutuak eman zion jarraipena. Gernikako estatutua Espainiako estatuak geure herria zapaltzen jarraitzeko mozorro bat baino ezta. Europako egoera politikoa hala eskatzen zion batasuneko kide izateko. Itxura aldatuta bat eskatzen zitzaion. Egoera internazionala geure alde zen. Benetako alternatiba demokratikoa inposatzeko une egokia zen. Hala ere, herriko klase politikoa nazionalismo inperialistaren aurka jarri beharrean alde egingo du, horrela herriaren itzarobideei muzin eginez. Gezurra badirudi ere, mozorroz estalitako inperialismo hori demokratikoa, askea eta bakea dakarrena dela sinestarazi nahi digute.

Artean Eta- n borroka jarraitzen zuen. Herri mugimenduekin bat egin ezinik bere bidetik ziharduen. Hala- holako biko bidea bultzatu zuen. Alde batetik, masen indarra aintzakotzat

hartu ezean, inperialismoaren saretan murgiltzen da atzerritar instituzio bidera ezinetan sartuz. Bestetik, une oro legitimatzen ari direna armaz borrokatzen dute. Kontraesan hori ezin gaindituz, herri mugimenduak borroka armatua urruntzera eraman du. Bide horren bukaera gertu dugu. Bide hori agortuz, hasieratik hanka bat sartuta bazuen ere orain prest daude biak sartzeko. Hauek ere bere errendizioa mozorrotzen ari dira.

Bi bideak, Gernikako estatutua eta borroka armatuarena antzuak izan dira. Bata bestearen atzetik, orpoz- orpo bide berdina hartzekotan daude. Porrota eta errendizioak etsaiaren eskuetara eraman ditu. Pnv- Ea eta Eta etsita daude eta Herri berari bidea eman beharrean inperialisten kide otzanak bihurtu dira. Orain ere, ahulago daudenez, inperialistek ezarritako bideari ekingo diote. Inperialisten bidea bultzatuko dute. Mozorroa prestatzen ari dira. Eszena- toki horretan demokrazia eskasiaren gainditzea, bakea eta horrelakoak entzun beharrean egongo gara. Eta- n bukaera aitzakiatzat hartuko dute. Denok jakin badakigu, ordea, Inperialismoak, gorabehera handirik gabe, Eta aspalditik suntsitua eta kontrolpean eduki izan duela, ez baitu inoiz behar hainbat indar izan inperialismoa kezkatzen jartzeko. Baina denak, arrazoi ezberdinak medio, bide lagun izango dira eta denek, bakoitzak bere bertsioa erabiliz, garaipena goraiportuko dute.

Nabaria da bide horrek ez digula garaipenik ekarriko, herri indarrak eta borrokek baizik.

Geure herriko klase politikoak alde guztietatik porrot egin du. Hori gertatuko zela garbi ikusten zen Franko hil eta ondorengo urteetan. Gernikako estatutua hilda eta Eta- n bukaera adibide garbiak dira. Kezkatzeko egoera da, baldin eta herriak oraindik datozen urteetan horrelako klase politikoa jasan behar badu. Beraz, lehenik eta behingoz kolaboratzaile horiek indarrez salatu, baztertu eta bota behar ditugu, eta ondoren askatasuneko mugimendua geure gain hartu. Argi eta garbi geldi dadila beste iruzurrik ez dugula nahi eta, lehen bai lehen, joan daitezela pikotara.